

Fernando Beorlegi hil da, errealitatea eraldatzen saiatu zen artista errealista

Nafarra zen sortzez, baina Eibarren egin zuen lanaren gehiena, Txopitea, Plaza eta Larrañaga lagun zituela

IRUNE BERRO

Errealitatea «itsusia» iruditzen zitzaion Fernando Beorlegiri. Horregatik pintatu zuen akaso irrigarri, magia beltzaren ukituekin, beste mundu bateko kutsuarekin nolabait. Alabaina, artista engaiatua izan zen, ezagutu zutenek diotenez. Eta errealitatea edertzeko lan egin zuen bizitzaren osoan, artean eta herrigintzan.

1928ko urtarrilaren 21ean sortu zen Fernando Beorlegi, Arrizabalagan, Nafarroan. Eibarrera ezkondu zen, 1956an, Maria Luisa Ereña emaztearekin. Gipuzkoako herri hartan sortu zuen bere obraren gehiena. Sortzaile nekazaria izan da, artista oparoa. Bizitza osoa pinturara emana, herenegun zendu zen, Irunen, 79 urterekin. Eta gaur egingo dute haren aldeko hileta elizkizuna, Eibarko San Andres elizan, 19:00etan.

Iruñeko maristetan ikasi ondoren, Javier Ziga margolariaren eskolan jardun zuen, 1942tik 1945era. Urte hartan Lizarrara bizitzera jo-

an zen Beorlegiren familia, eta han, Gustavo de Maeztu margolaria ezagutzeko parada izan zuen. Artean erabat murgilduta, Madril en eman zituen bi urte. Espainiako hiriburuko museoak behin eta berriro bisitatu zituen 1951n eta 1952an. «Herriko Goya» ezagutu zuen Pradon, «baserritarra, deabrua bera ikusten zuen artista». Goyaren margoekin liluratu zen Beorlegi. Artista espainiarraren eragina nabarmena da euskal sortzailearen obra osoan.

Paisaiak pintatzen hasi zen Beorlegi, baina laster utzi zituen alde batera, margo errealista egiteko batzuetan, surrealista bestetan, baina ludikoa betiere, umore garratzarekin eginikoa. Beorlegiren hainbat lanetan Salvador Daliren eragina sumatzen duen kritikaririk ere bada.

HERRIGINTZAN BURU-BELARRI. Jorge Oteiza, Vicente Ameztoi, Agustin Ibarrola, Daniel Txopitea, Marino Plaza eta Paulino Larrañaga artistak lagun izan zituen Beorlegik. Txopitea, Plaza eta Larrañagarekin lantegia partekatu zuen. 1967. urtean, ganbara zahar bat alokatu zuten Eibarren, beren obrak sortzeko bertan. Oteizak 1969an bisitatu zituen, eta Debako Arte Eskolan hasteko proposatu zien. Lan



Fernando Beorlegiren *Soinujotzailea* margolana, 1978. urtekoa. ECOIBARRA.COM



Eibarko hirigintza arazoek kezkatuta, Gure Herria auzo elkarteko lehendakaria izan zen 1976. urtean



Fernando Beorlegi, Maria Luisa Ereña emaztearekin eta seme-alabekin.

eta ilusio handiko urteak izan ziren horiek Beorlegirentzat. Alberto Lopez arkitektoarekin diseinu bulegoa martxan jarri zuen, Armagintza Eskolan pintura irakasle ibili zen, eta lantegi berria ireki zuen. 1974an, Goruntz taldea sortu zuen, Txopitea eta Larrañagarekin batera. Eibarko hirigintza arazoek kezkatuta baitzeukaten artista aspalditik. Hala, Gure Herria auzo elkartearentzat buru-belarri hasi zen lanean, eta 1976an, elkarre hartako presidente izendatu zuten.

Baina artea ez zuen bazter utzi. Inolaz ere ez. Gustave Doreren grabatuek txunditu zuten oso gazterik, eta teknika horretan sakondu zuen urte batzuen ondoren. Bere ezagutzak zabaltzeko irrika zuenez gero, grabatu ikastaroa antolatu zuen Eibarko Armagintza Eskolan 1978an. Azido izeneko taldea han batutako zenbait ikasleek eratu zuten. Handik urtebetera, Gasteizko erakustareto bateko zuzendari ardura hartu zuen Beorlegik. Eta artista nafarrak kargu hori zuela erakutsi zituzten beren lanak areto horretan Carlos Zabala Arrastaluk, Juan Luis Goenagak, Jorge Oteizak eta Vicente Ameztoik, besteak beste.

Beorlegik ez zion sekula sortzeaz utzi, nahiz eta beste lan batzuetan aritu. Bakarka nahiz taldeka,

erakusketa ugari egin zituen Euskal Herrian nahiz Espainian. Eta 1993an, haren obraren gehiena erakutsi zuen Kutxak Donostian duen aretoan. Errealismoaren eta surrealismoaren artean sailka daitezkeen obrak aurkeztu zituen batetik bat. Margolan ederrak, baina gordinak, eta batzuetan, gogorak. Onirikoak zenbaitetan. Kolo-rek eztanda egiten dute Beorlegiren pinturetako askotan. Pertsonak hirian duen bizimodu latzaren berri ematen dute batzuek; paisaia geometrikoak agertzen dituzte bestetuek. Animalia eta pertsonaia fantastikoak azaltzen dituzte askok.

ADITUEN IRITZIA. Edorta Kortadi arte kritikariak dioenez, «Beorlegik ez zuen gustuko artista surrealista edota hiperrrealista gisa sailkatzeta, nahiz eta onartzen zuen bere lan askok bi mugimendu artistiko horietatik asko zutela». Artistak berak honelaxe arrazoitzen zuen bere joera: «Errealitatetik ihes egiten dut, ezin itsusagoa iruditzen zaidalako». Gainera, uste zuen norberaren izaerak, senak eta subkontzienteak arrazionalismoak baino balio handiagoa zuela.

Kortadik argi dauka: «Beorlegiren obra errealista da». Artistari, errealistaz gain, «irrigarriak» iruditzen zitzaizkion bere lanak.

BERRIAK gonbidatzen zaitu harpidedunentzat 50 sarrera ditugu



50 sarrera

BUKATUTA

Lekor eta SOROIZEK aurkezten du
SOMMER JAUNAREN ISTORIA
estreinaldia antzerkia

Donostiako Antzoki Zaharrean, urtarrilaren 11n, 20:00etan.

deitu: 943-30 43 45

AUKERA EZAZU, BIZI EUSKARAZ **berria**